

## 10.KOSTUEN EGITURA

Aurreko ataletan aipatu den bezala, enpresa honek leku desberdinetatik lortuko du finantziazioa sortzen diren gastuak ordaindu ahal izateko. Horiek dokumentu honetan azalduko ditugu.

Puntu hauek jorratzen hasteko, egingo diren kontratazioen inguruan hitz egitea gustatuko litzaiguke. Lehenik eta behin, gure enpresa, teknologian adituak diren pertsonekin harremanetan jarriko da eta hainbat aplikazio erakutsiko dizkigute. Aplikazio horiek gure web gunean zein haurrekin erabili ahal izango ditugu.


Pertsona kualifikatuez hitz egiten ari garenez esatea gustatuko litzaiguke, hizkuntza desberdinetan hitz egiten duten pertsonen laguntza izango dugula, kultura desberdinetako hizkuntzak barneratzen laguntzeko.

Horrekin batera, laguntza psikologikoa ere egongo da. Zerbitzu hori taldean egindako terapietan erabiliko da, izan ere, familiek kontaktzen dituzten esperientzia asko traumatikoak izan daitekeelako eta pertsona horri egoera hori gainditzen lagunduko dio.

Aditu hauek, astean bi egunez lan egingo dute gurekin eta nahiz eta zerbitzu laburra izan beharrezkoa ikusten dugu aditu hauen laguntza. Horregatik, pertsona hauen soldatak kostu finkoen barnean egongo lirarteke.

Gure enpresak izango duen beste kostuetako bat espazioa izango da. Bertan, pertsona desberdinak askatasun osoz mugitu ahal izago dira.

Gure espazioa bi solairuk osatzen dute, beheko solairuak, familia-bileretarako balio izango du. Goikoan, berriz, kultura desberdinak lantzeko materiala aurkituko dugu, non material hauen kostua aldakorra izan daitekeen, azken finean hilabete horretan landuko dugun kulturaren arabera izango delako. Bukatzeko, espazioan zehar gela batzuk ere aurkituko ditugu eta gela horietan, kostu finkoa izango duten materiala aurkituko da.



Laburbilduz, enpresak kostuak izango ditu, batzuk aldakorrak (margoak, kartulinak, papera, etab) eta beste batzuk finkoak (langileon soldatak, alokairua, etab) izango direnak.